

Ezpalak

GORKA BEREZIARTUA

Michael Hanekeri eman diote Zinemaldiko Fipresci saria

ZUZENDARI austriarraren *Das Weisse Band* film berriak jaso du Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko Fipresci sari nagusia. Horri esker, filma Zabaltegi-Perlak sailean jarriko dute aurtengo edizioan. Ez da Hanek lan honengatik jaso duen sari bakarra: aurtengo Cannes-eko zinema jaialdian sari nagusia eskuratu zuen 1913an girotutako istorioak. Zuri beltzean grabatua, Alemaniako herri txiki bateko bizilagunak dira Hanekeren pelikulako protagonistak. Lehen Mundu Gerraren atarian, herrian istripu arraroak gertatzen hasiko dira, eta horien iturria bilatuko dute herritarrek.



Sete Sóis Sete Luas jaialdia antolatu dute Deban

BIGARREN ALDIZ iritsiko da Euskal Herrira Sete Sóis Sete Luas jaialdia. Munduko hainbat herrialdetako 30 hirik osatzen dute jaialdiaren zirkuitua: zirkuitu horri esker, herrialde bakoitzeko artistek aukera dute atzerrian emandialdiak eskaintzeko. Aurten irailaren 4tik 6ra Deban antolatu dute. Herri musika, kaleko antzerkia eta arte plastikoen inguruko proiektuak aurkeztuko dituzte Gipuzkoako herrian, eta, besteak beste, Deabru Beltzak, Il Parto Nuvole Pesanti eta La Gialletta taldeen emandialdiak ikusi ahal izango dira. Jaialdiari buruzko informazio gehiago www.7sois7luas.com helbidean.

Vice Presidentes talde gasteiztarrak EP berria argitaratu du. *Bloodola* du izena taldeak bakarka argitaratu duen bigarren lanak —iaz Sorkunekin batera disko bat grabatu zuten—. Binilo formatuan kaleratu dute: sei abesti, hamar minutu; esan beharrik ez dago azkar jotzen dutela. Mike Olfielden *Tubular Bells* abestiaren moldaketa da diskoko bitxikerietako bat —*Jugular Bells* du izena bertsiolak—. Guztira *Bloodolaren* 525 ale kaleratu dituzte. Dena dela, diskoa doan deskargatzeko aukera dago Interneten: www.myspace.com/vicepresidentes.

Luna Krearen bigarren edizioa prestatu dute Gasteizen, irailaren 11rako. 50 obra artistiko izango dira ikusgai. Aurtengo berrikuntzarik nagusiena bideoklip maratoia izango da. Bertako eta atzerriko 40 bideoklip inguru aurkeztuko dira jendaurrean eta horietatik hamabost hautatuko dituzte Gasteizko Foru plazan erakusteko. Dantza ikuskizunek, musikak, arte plastikoko erakusketek eta antzerkiak Luna Krearen programa mamituko dute.

Fasio, Bonifazio Arandia (1909-1987) zena omenduko du Igorreko Udalak hila-betez. Abuztuaren 30ean hasi ziren soinu-jolearen omenezko ekitaldiak, haren jaiotzaren mendeurrenarekin bat eginez. Irailaren 24an jarraituko du omenaldiak, Fasio eta XX. mendeko trikitiari buruzko mahai-inguruarekin. Irailaren 25ean erromeria izango da eta 26an kontzertua. Erakusketa bat ere antolatuko dute Igorren.



● **Mikel Urdangarin musikariaren hitzak bildu ditugu *Deia* egunkari-ko orrietatik:** «Musikan aurrera egitea, bide berri bat zabaltzea edota proiektu bat aurrera eramatea edozein hizkuntza eta tokitan, zaila da. Baina gure kasuan, gaztelania eta ingelesa bezalako beste kultura batzuekin elkarbizitzen dugunez, izugarria da. Baina nik naturaltasunez egiten dut, euskalduna naizeenez eta nire ama-hizkuntza euskara denez gero. Sentitzen dudana egiten dut».

● **Jean-Luis Davantek *Berrian* esanak:** «Autoreen errespeturik ez da orokorki euskal literaturan. Ez da behin ere izan. Pastoralen liburuen azalean, usaian, idazlearen izena ez da agertzen. Aurten agertu da. Eta egia ere bada *Xiberoko Makia*-n enea jarri zutela. Baina salbuespenak dira (...) Pastoraletan, batzuetan dozena bat kantu berri badituzu. Gero, problema da bihi bat ez dela gelditzen. Pastoralak iduri luke botatzen diren mokanesak bezalakoa dela. Ematen

da eta gero hor fini. Domaia da, kantu ederrak badira, eta hiltzen dira. Etxahunez geroztik, bat gelditu da, nik uste, pastoraletarik: Berzaitzen *Baratze bat* (...) Ohartzena euskal literatura beti azkartzu dela halako konkurrentzia bat izan delarik. Katoliko eta protestanteen artean, gero zuri eta gorrien artean, eta geroago abertzaleen eta beste artean. konkurrentzia baten beharra bagenuke egun! [irriak]. Gero, egia da euskaraz idazle badela orain. Irakurleak ditugu falta...».